

ANALISI OROKORRA

UROLA ERDIA ETA UROLA GARAIKO
LANDA EREMUA BALIOZTATU:
ERALDEAKETA, KONTSUMO ZIRKULARRA
ETA DIGITALIZAZIOA OINARRI IZANIK



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Landa eremua testuinguratzen
Ekonomia Zirkularraren printzipioak
Balio kateak, Ekonomia Zirkularraren printzipioak
eta merkatua
Urola erdia eta Urola Garaiko esperientzia eta
egitasmoak
Urola erdia eta Urola Garaiko landa eremua:
eraldaketa ekonomia zirkularra eta
digitalizazioaren eskutik

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

- **Iraultza digitala: landa eremuko eraldaketak eta joerak:**
 - **Zeintzuk dira erronka nagusiak landa eremuan?**
 - Eten digitalarekin amaitu. Eten digitalak bi ikuspegi nagusi jaso ditzake. Lehenik eta behin teknologia berrienak eskuragarri izateko zailtasunak, eta bestetik, eskuratutako teknologia berrien erabilpenean zailtasun eta oztopoak izatea.
 - Generazio gazteak erakarri. Gazte ugari landa eremuan bizitzeko joera hartu dute, baina baliabide eta zailtasunek ez dute jarraipen hau erraza izaten uzten.
 - Konpetentziak landu eta formakuntza sustatu.
 - Konektagarritasuna landu.
 - Datuen erabilera sustatu.
 - Talde mailako antolakuntza datuen kudeaketarako.
 - Negoio eredu berriak sustatu.
 - Aholkularitza eta berrikuntza plangintzak.
 - **Eraldaketa joerak.**
 - Iraultza digitalak, teknologia berrien eta prozesuen digitalizazio osoa suposatzen du. Honek berrikuntza eta honen irisgarritasuna hobetzeaz gain, beste hainbat sektore eta eremuetan garapen falta handia nabarmentzen du.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

1. Ezaugarri sozio-demografikoak:

• **Europa:**

- Lurralde osoaren landa eremua %90a da, eta biztanleriaren %54 bizi da bertan.

• **Espainia:**

- Lurraldearen %84 landa eremua da, eta herrialdeko biztanleria osoaren %16 a bizi da bertan.
- Udalerrien % 80a landa eremuan kokatzen da.

• **Euskal Autonomia Erkidegoa:**

- Espainia mailan landa eremuko biztalaria gutxiena duen erkidegoetakoa da.
- EAEko landa eremua erkidegoko lurren %84,6a da.
- Biztanleriaren %3ak egiten du lehen sektorean lan.
- Landa eremuan bizi den biztanleria kopuru handiena Araban nagusitzen da; Arabako biztanleriaren %19,5a. Bizkaia eta Gipuzkoari dagokionean, hiri izaerakoak kontsideratzen dira.


• **Gipuzkoa:**

- Gipuzkoako udalerrien %50a landa eremuan kokatzen da.
- Gipuzkoako biztanleriaren %7,4a bizi da landa eremuan.

• **Urola:**

- Biztanleriaren %11a landa eremuan bizi da.
- Urola garai eta erdian 58.000 biztanle inguru daude.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN



Aizarnazabal	779 ¹
Azkoitia	11.627 ¹
Azpeitia	15.106 ¹
Belzama	146 ¹
Bidania-Goiatz	525 ¹
Errezil	578 ¹
Ezkiu-Itsaso	601 ¹
Legazpi	8.321 ¹
Urretxu	6.782 ¹
Zestoa	3.772 ¹
Zumarraga	9.781 ¹

Biztanleria Urola garaia eta erdian herriz herri.

Ezaugarri sozio-demografiko hauek zer adierazten dute?

Landa-eremuaren errealitatea anitzak, batzuk aldaketa demografiko krisian daude (batez ere Espainiako estrategiak despulazio eta demografian dauden bereizte hauek ditu erronka gisa jasota), eta honek garapen ekonomiko eta soziala zailtzen du.

Despupulazio fenomeno oso larria da, landa eremuko biztanleriaren zahartzeak, teknologia eta iraultza digitala oztopatzen ditu etengabe.

EAE eta Gipuzkoa mailan, landa eremuan landa arloko jardueran lan egitea izango litzake erronka. Instituzioek adierazi duten erronka handiena, administrazioarekin hobetu beharreko kanalak dira.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Lehen sektoreko jarduerak eta enplegua:

- Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu osoaren %9a landa eremuan bideratzen da. Honek ez du esan nahi, pertsona hauek lehen sektorean egiten dutenik lan. (%2ak nekazaritzan egiten du lan) + BPG % 0,73
 - Zerbitzuen sektoreak lana egiteko joera handitzen ari da.
 - Hiri eremuetara mugitzea ohikoa da, lan arrazoiak dira eta.
 - Turismoak izan duen gorakadak landa eremuan izan duen eragina nabarmena izan da, batez ere agroturismoen eskaintzan. Honek landa eremuaren behar berriak azaleratzea eragin du.
- Jarduera ekonomikoari dagokionean, Gipuzkoa mailan lehen sektoreak %0,56eko BPG sortzen du. Industriak duen indarra nagusitzen da Gipuzkoa aldean. Lehen sektorea ez da batere nagusi ekonomia garapenean egungo egoeran.
- Ekoizpen garrantzitsuenak:
 - Barazkiak + Ardogintza + Behi-esnea.
 - Bi transformazio eredu nagusitzen dira:
 - *Sektore ekoizlea*: Ustiatutako lehengaia transformatu ez duen ekoizlea.
 - *Sektore ekoizle-egilea*: lehengaia ekoizteaz gain merkaturatzeko gaitasuna du eta lehiakortasun handiago lortzen du. Beste hainbat egitasmorekin saretzeko joera dute.
- Urola aldeko biztanleriaren %11ak landa eremuan bizi da eta biztanleria aktiboaren %9,82ak lehen sektorean egiten du lan.
 - Urola kostako ustiategi gehienetan abeltzaintza nagusitzen da.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Landa eremuko agenda soziopolitikoa eta egitasmoak:

○ Europar Batasuna:

○ Egitasmoak:

- Informe Huitema (Resolución del Parlamento Europeo, de 7 de junio de 2016, sobre la mejora de la innovación y el desarrollo económico en la futura gestión de las explotaciones agrícolas europeas)
- Un mercado unico digital. Comision europea, 2015,
- Declaración de Cork 2.0. una vida mejor en el medio rural 6 de septiembre de 2016.

○ Honako ildo nagusiak aurreikusten ditu EB:

- Landa eremuko komunitate jasangarri eta dinamikoei babesa eman.
- Ekintzailetasunaren sustapena.
- Hezkuntza, formakuntza eta lan enpleguaren sustapena
- Errealitate demografikoari erantzun egokiak eman.
- Konektagarritasun digitala sustatu.
- Administrazio publikoekin gertutasuna landu.

- Alemanian, Smart Countryside egitasmoa aipatu beharrekoa da. Lurralde arteko konektagarritasuna eta adimendua den egitasmo bat burutu da. Komunikazio digitaleko plataforma bat eta hezkuntza digitaleko programa bat sortu dute

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Espainia:

○ Egitasmoak:

- Estrategia de digitalización del sector agroalimentario y forestal del medio rural. (Ministerio de Agricultura, Pesca y alimentación.) 2019.
- Programa Nacional de desarrollo rural 2014-2020.
- Plan estratégico de innovación y territorios inteligentes. Diputación de Sevilla.

○ Lantzeko **erronka eta ildo nagusiak:**

- Despopulazioaren gaia oso kezagarria da , eta fluxu demografikoa garatzeko planak ezinbestekoak dira.
- Arrakala digitalaren hobekuntza beharrezkoa da, eta berrikuntza egitasmo eta programetako murrizketek ez dute lagundu.
- Ikerketa lanetan inbertsio falta sumatu da, landa eremuko arazoei erantzunak emateko asmoz

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Landa eremuko agenda sozial eta politikoa:

○ EAE mailan:

○ Egitasmoak:

- 2020ko Agenda digitalak, EB eta Espainiako estrategiekin batera, landa eremua eta hiri eremuak gerturatzeko erronka hartu du.

 - Teknologia aldetik, egitura aldetik, giza ikuspegia kontuan izanda...

- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Balio Katean Digitalizazioa Garatzeko Plana Estrategikoa.

- LABEAN, Landa eremuan berrikuntza soziala pizten duen programa.

- OSOA, Landa Garatzeko Plan Berria 2015-2020.

○ Erronka eta ildo nagusiak:

- Belaunaldien arteko transmisioa eta honekin batera, lehen sektorearen modernizazioa sustatu.

- Berrikuntza, lehiakortasuna eta prestakuntza. Aholkularitza eta etengabeko formazioa.

- Elikagaien industria garatu. Banaketa sare eta kanal laburra eta merkaturatze lokala sustatu.

- Multikanal egiturak sustatu eta garatu, enpleguaren dibertsifikazioa garatu dadin landa eremuetan.

- Bereizgarrietako turismoak landa eremuan duen eraginaren kudeaketa berritzaile eta onuragarria sustatzea. EUSKADI marka. Ondarea, paisaia eta naturaren balioa goraiatuz.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Landa eremuko agenda sozia

○ Gipuzkoa mailan:

○ Egitasmoak eta planak:

○ Landagipuzkoa +

- Baserri bideak konpontzeko plana.
- Banda ultra-azkarra.
- Argindar sarea.
- Ekonomia suspertzeko proiektu estrategikoak.

○ Ildo nagusiak.

- Mugikortasuna hobetu landa eremu eta hiri eremuen arteko loturak sendotzeko.
- Konektagarritasuna eta teknologia berrienen sustapena.
- Nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Landa eremuko agenda sozia

○ Urola aldean:

- Urkome (Urola Kostako Landa Garapeneko Elkartea). Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren garapena eskualdean bultzatzea du helburu.
 - Nekazaritza jarduera sustatu.
 - Landa eremuko jarduera ekonomikoak sustatu.
 - Landa eremuko azpiegitura eta zerbitzuak bermatu.
 - Landa eremuko balioaniztasuna agerian jarri.
- Eskualdeko Landa Garapen Programa 2015-2020

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Etorkizunera begira zer? (Covid, negozio eredu digitala)

○ Europar Batasunak landa eremuan dauden problematika ugari sakondu egin direla dio, izan ere, aurretik baziren mehatxu ekonomiko eta soziala, hortaz, estrategia ezberdinetan aritzeko premia berehalakoa da. Hala, turismo eta ostalaritzaren geldialdia dela eta produktu askoren eskaria jaitsi egin da, konfinamendua dela eta aislamendu soziala egon da eta osasun-arloan dauden zerbitzu publikoak askotan ez ditu herritarren beharrak asetzen. Bestetik, kontsumo eta ekoizpenaren ikuspegitik aldaketa ezberdinak identifika daitezke, eta herritarrengan landa-eremuko balio ezberdinak kontutan hartzen hasi dira: bizi-kalitatea, mugikortasun formak,

○ EB-k landa kohesioa eta landa eta hiriguneen arteko oreka ezartzeko, honako printzipioen konplimenduak beharrezkoa dela dio.

○ Berdintasuna bizi baldintzetan

○ Berdintasuna eskubideetan

○ Berdintasun baliabide eta praktiketan.

○ Negozio eredu berriak sustatzeko kontuan hartzeko hainbat aldagai nagusitu dira datozen estrategia eta plan berrietan:

○ Ekintzailtza digitala eta hau garatzeko plataforma bat.

○ Telelana sustatu.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

- Administrazio publikoekin koordinatzea eta gerturatzea.
- Europar *Smart Village* kontzeptuak barneratu eta garatu.
- Landa eremu adimendun ekosistemak garatzeko baliabideak eskaini eta garatu.
- Generazio bitarteko elkarlana eta transmisioa egin.
- Egiturei dagokienez, garraio bideak egoki egoteaz gain, sare eta telekomunikazio-sare onak ezartzea ezinbestekoa izango da.
 - Gipuzkoako foru aldundiaren hurreneko plan hauek nabarmendu daitezke:
 - *Baserri bideak konpontzeko lana*. Plano digitalizatuak eta baserri bideen inguruko arautegi amankomuna aurreikusten dira.
 - *Banda ultra-azkarra*.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

○ Etorkizunera begira zer? (Covid, negozio eredu digitala)

- Europar Batasunak landa eremuan dauden problematika ugari sakondu egin direla dio, izan ere, aurretik baziren mehatxu ekonomiko eta soziala, hortaz, estrategia ezberdinetan aritzeko premia berehalakoa da. Hala, turismo eta ostalaritzaren geldialdia dela eta produktu askoren eskaria jaitsi egin da, konfinamendua dela eta aislamendu soziala egon da eta osasun-arloan dauden zerbitzu publikoak askotan ez ditu herritarren beharrak asetzen. Bestetik, kontsumo eta ekoizpenaren ikuspegitik aldaketa ezberdinak identifika daitezke, eta herritarrengan landa-eremuko balio ezberdinak kontutan hartzen hasi dira: bizi-kalitatea, mugikortasun formak,
- EB-k landa kohesioa eta landa eta hiriguneen arteko oreka ezartzeko, honako printzipioen konplimenduak beharrezkoa dela dio.
 - Berdintasuna bizi baldintzetan
 - Berdintasuna eskubideetan
 - Berdintasun baliabide eta praktikean.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

- **Etorkizunera begira zer? (Covid, negozio eredu digitala)**
- Negozio eredu berriak sustatzeko kontuan hartzeko hainbat aldagai nagusitu dira datozen estrategia eta plan berrietan:
 - Ekintzailtza digitala eta hau garatzeko plataforma bat.
 - Telelana sustatu.
 - Administrazio publikoekin koordinatzea eta gerturatzea.
 - Europar *Smart Village* kontzeptuak barneratu eta garatu.
 - Landa eremu adimendun ekosistemak garatzeko baliabideak eskaini eta garatu.
 - Generazio bitarteko elkarlana eta transmisioa egin.
 - Egiturei dagokienez, garraio bideak egoki egoteaz gain, sare eta telekomunikazio-sare onak ezartzea ezinbestekoa izango da.
 - Gipuzkoako foru aldundiaren hurreneko plan hauek nabarmendu daitezke:
 - *Baserri bideak konpontzeko lana*. Plano digitalizatuak eta baserri bideen inguruko arautegi amankomuna aurreikusten dira.
 - *Banda ultra-azkarra*.

LANDA EREMUA TESTUINGURATZEN

- **Covid19**aren egoerak landa eremuko testuingurua ere aldatu egin du, eta iraultza digital oso baten beharra gehiago nabarmendu da. Konfinamendu garaian sektore ugariak digitalizazio prozesu azkar bat izan zuten salbuespenezko larrialdi eta egoera honen ondorioz.
 - Digitalizazioari esker egitasmo eta enpresa askok aurrera jarraitzeko aukera izan dute, eta hau izan da irtenbide bakarra haien jarduera ekonomikoa ez eteteko.
- Ia behartuta sortutako egitasmo ugariak, landa eremuko erronka handienei erantzuna ematea lortu dute.
 - **Gipuzkoako Azoken Sarea.**
 - **Uztaro kooperatiba** erreferentzia interesgarria.
 - **Sareko:** Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak antolatutako merkataritza sarea

EKOIZLE ETA

KONTSUMITZAILEEN ARTEKO

KOMUNIKAZIO DIGITALA

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN PARADIGMA

- Konektagarritasunak espazio unibertsal berri bat eratzen du informazioa konpartitzeko.
- Gizarte-sarearen eraketa:
 - Nodoak (norbanakoak eta kideak) eta konexioak: nodoek botere maila ezberdinak izan ditzakete eta konexioen frekuentzia ere aldakorra da.
 - Sare bakoitzak helburu konkretu batzuk izan ditzake: Adibidez: eskualdeko produktu ekologikoak zeintzuk diren jakin.
 - Sareen eskema organizazionala malguagoa, horizontalagoa eta biziagoa da. Hedatzeko edo txikitzeko gaitasuna dute

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN PARADIGMA

- Taldeen egituraketan irizpide geografikoak garrantzia galtzen du, eta interesek, ohiturek eta gustuek baldintzatzen dute.
- Komunitate berriak sortzen dira. Komunitate deslokalizatuak. Interes berdineko pertsonak taldekatzeko modu berriak.
- Kodigo konkretuak konpartitzen dituzte (estrategiak, baloreak edota helburuak).
- Internetera sarbidea ez edukitzeak komunitate hauetatik kanpo egoteko arriskua handitzen du. Gizartean barne/kanpo dimentsio berri bat eratu baita.

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN PARADIGMA

- Enpresen digitalizazioa epe-ertainera planteatzen da sakoneko aldaketak behar baititu, hala, TIKak eraldaketarako abiapuntu dira:
- Teknologia berriek eta sareek egitura eta prozesu aldetik digitalizazioan eta berrikuntzan oinarrituriko ekonomia ahalbideratzen dute.
- Ekoizpenaren eta kontsumoaren inguruko datuak enpresen parte intrintsekoa bilakatu dira.
- Konpetentzia digitalak lan prozesuetan beharrezkoak dira, bereziki informazioaren kudeaketarako. *Know how* teknologikoa.
- Digitalizazioarekin batera enpresaren kultura aldatzen da.

KOMUNIKAZIO DIGITALAREN PARADIGMA

○ Merkatuaren norantza/ bi agertoki nagusi:

- 1) Merkatuaren agertokia: zutabe ekonomikoak gizartean zentralitate nagusia du. Teknologia berriak eta Internetera sarbidea izateak lurralde desorekaren arrazoi nagusietako bat bilakatu da.
- 2) Garapen alternatiboaren agertokia: dimentsio ekonomikoak ez ezik, ingurugiroak, kulturak eta gizarteak eragina dute. Ingurugiroaren jasangarritasuna eta kultura ezberdinekiko errespetuagatik nabarmentzen da. Ikuspegi kritikoa geopolitikarekiko eta kapitalismoarekiko.
- Bigarren ildo honen baitan, ekonomia zirkularraren jarduerak kokatzen dira. Lehen sektoreko ekoizle askok merkatuko eskari honi erantzuteko, balioan oinarrituriko produktuak eskaintzen dituzte: tokikotasuna, **produktu naturalak, eta ingurugiroarekin jasangarriak diren produktuak.**

KOMUNIKAZIO DIGITALA ETA KOMERTZIALIZAZIOA


- Kontsumitzailearen profila: kontsumitzaileek plazerraren bila eta esperientzia berrien bizipenak nahi dituzte, eta hauek kontsumoaren bitartez lortzen dituzte. Produktuak erostean edota esperientziak bizitzean kontsumitzaileak egiazkotasuna edo berrikuntza bilatzen du.
- Kolaborazio irekia: komunikazioa multidirekzionala da.
- Arretaren ekonomia
- Bitartekari berriak
- Online+ offline integratuz
- Digitaltasuna jarrera gisa

KOMUNIKAZIO DIGITALA ETA KOMERTZIALIZAZIOA

- Komunikazioa multidirekzionala da: Konektatuak egoteak esperientziak partekatzea eta errekurtsoak eta datuak konpartitzeko aukera eman dezake.
- Komunikazioa multikanala da: ekoizleak eta kontsumitzaileak simultaneoki konektatuak egon daitezke plataforma ezberdinen bitartez.
- Saturazio digitala / ekosistema digitalean zaborra
- Ekoizpenaren lan prozesuaren etapa bezala finkatu daiteke: Marketing digitalaren komunikazioa
- Produktuari balioa eransteko abiapuntuetako bat da

KOMUNIKAZIO DIGITALA ETA PLANIFIKAZIOA

- Ikuspegi praktiko batetik prozesu komunikatiboaren diseinuan eta exekuzioan hiru etapa ezartzen dira: hausnarketa-ekintza-ebaluazioa. Behin azkeneko etaparekin amaitzean, beste ziklo baten prozesua jartzen da martxan:



KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO ERRAMINTAK

- Web-orriak eta online denda
- Blog-ak
- Sare sozialak
- E-mail marketing
- Bilatzaileetan posizionamendua (SEO, SEM)
- Mobile marketing
- Onlywire

KOMUNIKAZIO DIGITALERAKO ERRAMINTAK

- Salmenten promozioa (sariak, opariak, deskontuak, kupoiak)
- Iragarkiak (beste web-orri batzuetan edota komunikabide digitaletan azaltzeagatik ordaindu)
- Marketing zuzena (telefonoa, SMS, korreo elektronikoa, katalogoak)
- Fidelizazio programak (produktu eksklusiboak eskaini, deskontuak, merchandising, esperientzian oinarrituriko sariak)

EDUKIEN FORMATU DIGITALAK

Irudia

Bideoak

Live streaming

Infografia

Gidak edo "nola egin"

Plantilak

Reportes / White Paper

Webinar

Aurkezpenak

Podcast

Etab.

BALIO KATEAK, EKONOMIA ZIRKULARRAREN PRINTZIBIOAK ETA MERKATUA

EKONOMIA ZIRKULARRAREN IRISPIDEAK

EGITASMO HONETAN

- Kapital naturala gorde eta hobetzea, izakin mugatuak kontrolatuz eta baliabide berriztagarrien fluxuak orekatuz
- Baliabideen erabilpena optimizatzean, ekoizkinak, osagaiak eta materialak biraka jarriz, une oro erabilgarritasunik handiena dutela, bai ziklo teknikoetan eta baita biologikoetan ere. Horrekin batera egokitzeko ahalmena, kontsumitzaileen behar eta nahietara.
- Eredu zirkularrean ahalik eta irabazirik handienak lortzea, ez litzateke oinarrituko kostu absolutuak ahalik eta txikien bihurtzean eta berriak oso azkar saltzen baizik ekoizkina zahartzearen, berrerabilpenaren eta bera berriro manufacturatzearen bitartez lortu ahal izango litzateke.
- Tokikotasuna: ekoizpenaren geografia-kokapena, ekoizkina eta zerbitzuaren gertukotasuna (km 0) eta harremana, testuinguruaren ezagutza (bai ekoizlearentzako eta baita kontsumitzailearentzako), konfidantzazko harremana.
- “Industria sinbiosia”: Eskualdeko herri eta jarduera ekonomiko txikien arteko harremanak eta elkarlanak. Tresneria edo azpiegituren partekatzea. Beste enpresen soberakin edo hondakinen erabilera.

Balio kateak eta merkatura ELIKADURAREN SEKTORETIK OROKORREAN

- ELIKADURA SEKTOREAREN BALORE-KATE OSOA
- Elikaduraren sektoreak elikagaien ekoizpenetik hasi eta ostalaritza eta jatetxeetara hartzen ditu eta banaketa eta merkataritza sektore oso garrantzitsuak dira hartan.



Balio kateak eta merkatua

EKONOMIA ZIRKULARRAREN IKUSPEGITIK

Nekazaritzako elikagaien balio-kateko funtsezko azpi-sektoreak



Nekazaritza-
ekolozpena



Elikagalak
prozesatzea



Banaketa, packaging
eta xehekako salmenta



Kontsumoa eta
catering zerbitzua


Iturria: Ihobe



file:///C:/Users/usuario/Downloads/Elikadura%20Zirkularra_Pais_Vasco.pdf

Balio kateak eta merkatua

EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIAK



EREDU EKONOMIKOAK ETA KONTSUMOAK BERRIZ PLANTEATZEA

- Berrikuntza eta negozio-eredu berriak
- Zirkuitu laburrak eta autosufizientzia sustatzea
- Elkarlaneko kontsumoa
- Kontzientziazioa

PRODUKTU ADIMENTSUAGOAK ERABILTZEA ETA FABRIKATZEA

- Produktuaren ingurumen-ebaluazioa
- Ekodiseinatzea
- Erabilitako baliabideak optimizatzea
- Energia berriztagarriak erabiltzea

BIZITZA BALIAGARRIA ZABALTZEA

- Elikagaien xahuketa murriztea
- Birbanatzea eta berrerabiltzea
- Birbalerizatzea
- Birziklatzea

Iturria: Ihobe



Balio kateak eta merkatua

EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIAK

1. Eredu ekonomikoak eta kontsumokoak berriz ere planteatzea

- **Berrikuntza eta negozio-eredu berriak** – Esaterako, serbituzioa: hau da, produktuen salmentatik zerbitzuen eskaintzarako bilakaera; horri esker, sistemaren eraginkortasuna hobetu daiteke, baliabideen kontsumoa murriztu eta balio erantsia sortu erabiltzaileentzat.
- **Zirkuitu laburrak eta autosufizientzia sustatzea** - Elikadura-kate luzeek baliabide asko erabili behar dituzte banaketarako. Esaterako, zirkuitu laburrak tokiko produkzioaren eta bitartekoak kentzearen bidez sustatzeari esker, inpaktu hori murriztu daiteke eta elikadura-produktuen trazabilitatea eta gardentasuna handitu.
- **Elkarlaneko-kontsumoa** - Plataforma digitalei eta komunitateei esker, baliabideak partekatzen eta trukutzen dira, eta horrela, baliabide horiek modu eraginkorragoan erabiltzen dira.
- **Kontzientziazioa**- Kontsumitzailearen erabakiek produktuen eskaintza eta ekoizpen-modua baldintzatzen dute. Dieta-motan eta erosteko moduan eragitea funtsezkoa da sektoreko inpaktua hobetzeko eta elikagaien xahuketa murrizteko.

Balio kateak eta merkatua

EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIAK

2. Produktu adimentsuagoak erabiltzea eta fabrikatzea

- **Produktuaren ingurumen-ebaluazioa** - Adibidez, karbono-aztarna, aztarna hidrikoa edo produktuaren ingurumen-aztarna funtsezko tresnak dira erabakiak hartzeko.
- **Ekodiseinatzea** - Produktuak edo zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko fasean ingurumen-irizpideak hartzea bizitza-zikloaren fase ezberdinetan ingurumen-inpaktua hobetzeko.
- **Erabilitako baliabideak optimizatzea** - Hainbat estrategia barne hartzen ditu, besteak beste, materialak, ura eta energia murriztea eta modu eraginkorragoan erabiltzea, ingurumen-talka txikiagoko materialak aukeratzea edo eskaintza eta eskaera besterentzen duen plangintza bat izatea.
- **Energia berriztagarriak erabiltzea** - Esaterako, eguzki-energia, energia eolikoa, biomasa, energia geotermikoa, energia hidraulikoa, besteak beste.

Balio kateak eta merkatura

EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIAK

3. Bizitza baliagarria zabaltzea

- **Elikagaien xahuketa murriztea** - Elikadura-xahuketa maila handia da, % 33koa, eta hori elikadura-sistema eraginkorra ez izateko iturri bat da, gainditu behar dena elikagai soberakinak hobeto aprobetxatuz.
- **Birbanatzea eta berrerabiltzea** - Elikadura-produktuen bizitza erabilgarria luzatzen lagunduko luke, esaterako, ontziak eta bilgarriak.
- **Birbalorizatzea**- Elikadura organikoaren hondakinen balorizazio materiala eta energetikoa barne hartzen ditu (konposta edo biomasa), baita kateko azpi-produktuen aprobetxamendua ere, esaterako, animalien elikaduran.
- **Birziklatzea**- Birziklapenari esker, beren bizitza erabilgarriaren amaieran dauden baliabideak produkzio-prozesuetan sar daitezke berriz ere.

PRAKTIKA ONAK UROLAN

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

UROLA ERDIAN: URKOMEK BULTZATURIKO EGITASMOAK

- Urola Kostako ekoizleen [gida](#)
- Urola Gustagarri: Eskualdeko ekoizleen eta jatetxeen jardunak bateratu eta, bertako produktuak balorean jarriz, aisialdi eta turismo eskaintza berri bat da [Urola Gustagarri](#).
- Urkome Sariak: Bi urtetik behin Urola Kostako Landa Eremuan egiten diren ekimen edo jarduera berritzaileak saritzeko antolatzen dugu ekimen hau.
- Urola Kosta Online Eskualdeko gure web orria bisita ezazu. www.urolakostaonline.com
- Urola Kostako produktuen erakusleihoa Eskualdeko ekoizleetatik zure etxera. www.urolakostadenda.com

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

- UROLA ERDIAN: URKOMEREN KOOPERAZIO EGITASMOAK
- LANALAN DESKRIBAPENA
- Artilearen erabilera alternatiboetarako lankidetzak teknologikoa: material PLASTIKOAK eta beste kutsatzaile batzuk ordezkatzeko.
- HELBURUA: LANALAND proiektuaren helburu nagusia bertako esne-arrazetako ardi-artilearen balio erantsia handitzea da; izan ere, orain hondakin izaera dauka, eta bertako nekazariarentzat kudeaketa arazotsua bihurtu da. Proiektuaren asmoa produktu hori balioztatzen irtenbide berritzaileak garatzea eta tokiko enpresei hazteko aukera berriak eskaintzea da, ekonomia zirkularraren ikuspegitik.
- FINANTZAKETA: Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER) kofinantzatutako proiektua.
- Parte hartzaileak: LANALAND proiektua, NEIKER (Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua) buru dela, Latxa Esnea kooperatibarekin batera, Urkome (Urola Kostako landa-garapenerako elkarteak), EKOLBER, Chambre d'agriculture des Pyrénées Atlantiques, Chambre de Commerce et de Industrie Bayonne Pays eta UPPAK (Université de Pau et des Pays de l'Adour).
- Proiektua 2019-2022 urteetan exekutatu da.
- www.lanaland.eu

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

- LATXARI
- DESKRIBAPENA
Latxa artilearen ehun-balorizaziorako alternatibak, hainbat merkaturan merkaturatzeko.

HELBURUA

Gaur egun existitzen ez den ehungintzako produktu bat sortu nahi da, latxaren artilea oinarri hartuta egina. Produktu horren trazabilitatea bermatuta egongo da ustiategitik produktua hornitu arte, eta merkaturatzeak balioa eman ahal izango die artalde latxoek ustiategiei, haien artilea kudeatzeko zaila den hondakina izaten jarraitzen baitu.

FINANTZAKETA

Proiektua Landa Garapenerako Nekazaritza Funtzak (FEADER) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute, lankidetzarako laguntzen bidez.

Parte hartzaileak: Latxa esnea Koop., Neiker, Urkome eta Maria Clé.

Proiektua 2020-2021ean exekutatu da.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

- AZOKA PLAZA 2.0

- DESKRIBAPENA

Bertako ekoizleak ardatzean jarrita, Azpeitiko Azoka Plazan topatu daitezken bertako produktuak udalerriko jangela desberdinetara iristeko hornikuntza unitatea.

HELBURUA

Tokiko elikadura sistemaren garapen integrala eta lehen sektorearentzako aukera berriak sortzea du helburu, hazkunde etengabea dagoen eskariari egokitutako produktu berrien diseinuaren bitartez.

- FINANTZAKETA

Proiektua Landa Garapenerako Nekazaritza Funtsak (FEADER) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute, lankidetzarako laguntzen bidez.

Parte hartzaileak: Azpeitiko Udala, Artxara Koop., EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Urkome.

- Proiektua 2019-2020 urteetan exekutatu da.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

- ARTILATXADESKRIBAPENA
- Artilearen arazioari aurre egiteko eta ardi latxaren artileak dituen ezaugarri bereziak kontuan harturik, artilatxa proiektua sortzen da, urtero produzitutako artilearen merkaturatzean egonkortasuna lortzeko eta ardi latxa ustiapenetan egindako lanari balio erantsia emateko.HELBURUAK
- Helburu zehatzak:
 - • Ardi latxa ustiapenetako artilearen bilketarako beharrezko logistikaren antolaketa.
 - • Kolageno eta artiletik sortutako produktuen diseinu eta ekoizpena, eskala txikian.
 - • Ekoizpen eta sortutako produktuen merkaturatzeko bideragarritasunaren azterketa.
- FINANTZAKETA
- Proiektua Landa Garapenerako Nekazaritza Funtsak (FEADER) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute, lankidetzarako laguntzen bidez.
- Parte hartzaileak: LATXA ESNEA Koop, NEIKER, EKOLBER, LANDAOLA, BIZKAIMENDI, ARABALANDA.
- Proiektua 2017-2019 urteetan exekutatu da.
- www.artilatxa.eus

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

○ UROLAPIKO

○ DESKRIBAPENA

Urola Kostako elikadura kateko eragileen arteko elkar ezagutza eta elkarlana beharrezkoa zela oharturik eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak hobetzea xede harturik, Lakari Kooperatibak, Urola Kostako Udal Elkarteak, Hiritik At Kooperatibak eta Urola Kostako Landa Garapen Elkarteak, Urkomek sortutako lankidetzaren proiektua da.

○ HELBURUAK

- Landa eremuko eragile profesionalen arteko elkarlana sustatzea
- Landa-eremuaren potentziala eta balio erantsia ezagutzera ematea, eskualdeko nekazaritza produktuak balioan jarritz
- Urola Kostako ekoizle eta transformatzaileentzako komertzializazio-kanal berriak irekitzea
- Tokiko garapen iraunkorra bultzatzea
- Informazio eta ezagutzen partekatzea
- Informazioaren gardentasuna

FINANTZAKETA

Proiektua Landa Garapenerako Nekazaritza Funtzak (FEADER) eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dute, lankidetzarako laguntzen bidez.

Proiektua 2018-2019 urteetan exekutatu da.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

UROLA ERDIAN: BASERRI AGROEKOLOGIKO DIBERTSIFIKATUA. KOMUNTZO

- Komuntzo dibertsifikazioaren aldeko apustua egin duen nekazaritza ekologikoko landetxe bat da. Hainbat espazio ditu animalia- zein landare-jatorriko produktuak ekoizteko eta eraldatzeko, baita denda txiki bat ere bere produktuak merkaturatzeko.
- Hasteko, barazkiak eta frutak ekoizten ditu (funtsean sagarra, baina baita fruitu gorriak eta okaranak ere) baserri ondoko lursailetan. Horiek freskoan saltzen dira hiru modutara: (1) kontsumo-taldeetako saskietan, (2) eremuko dendetan eta (3) azokan.
- Bigarrenik, landetxeak 110 ardi ditu haragia ekoizteko. Ardiak lursaileko belarrarekin elikatzen dira, baina baita Nafarroako alpaparekin, zein, Tolosako GOIERRI eta DIVA kooperatibetan erosten duten pentsuarekin ere, hurbileko produktuekin osatuta izan dadila saiaturaz, transgenikorik gabe eta ekologikoki. Ardiak erosteko eskaera egin behar da; URKAIKOn hiltzen dira, eta baserrian entregatzen dira zuzenean.
- Bestetik, orain dela gutxi, gainera, esne pasteurizatua saltzen hasi dira landetxean; botilaratu eta hainbat formatuko mamiak egiten dituzte. Horretarako esnekiak eraldatzeko espazio bat du, ondoren harategietan eta beste tokiko denda batzuetan saltzeko.
- Azkenik, Komuntzok bisita gidatuak ere eskaintzen ditu, bereziki ikastetxeetako edo udalekuetako haurrentzat, tokiko nekazaritza-ekoizpenarekin sentsibilizatu daitezten. Horrek hainbat lantegi egitea dakar, esaterako, intsektuen hotelak, txorimaloak, zapalda-plantazioak eta praktikak animaliekin, besteak beste.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

UROLA GARAIA: BERTATIK BERTARA EGITASMOA

- Legazpi, Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Ormaiztegi Udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, INNOBASQUE-k, GOIMEN eta UGGASArekin elkarlanean, eskualdeko baserriko produktuen ekoizpen eta kontsumoa sustatzeko estrategia landu eta garatu nahi dute, ekoizleekin, erabiltzaileekin eta kontsumitzaileekin elkarlanean, azken finean, agente guztien inplikazioa lortuz.
- Zer da Bertatik Bertara?
 - Baserriko produktuen ekoizpena eta tokiko kontsumoa sustatzeko lehen sektorearen estrategia propioa da.
 - Baserriaren beharretatik abiatu dena eta hauek lurraldearen bizi ekonomiko eta sozialaren parte izatea indartuko duena.
- Zeintzuk dira helburuak?
 - Nekazaritza sektorearentzako egitura tinko, ireki eta antolatua garatzea.
 - Tokiko ekonomia sendotu eta beraz eskualdeko autonomia areagotzea.
 - Elkarren arteko lanetik, baserri eta herri iraunkorrak lortzea.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

UROLA GARAIA: BERTATIK BERTARA EGITASMOA

- Ekintza batzuek:
- Bertatik Bertara Azoka, Zumarragako Zelai Ariztin Urriaren 26an
- Larunbatean Zumarragako Zelai Ariztin Bertatik Bertara bigarren azoka ospatuko dugu. Bertatik Bertara azokaren bigarren edizio honek, ekoizleen eta kontsumitzaileen topaketa izatea du helburu. Garaian-garaiko produktuak eskainiz, herritarrak inguruko ekoizleak ezagutzeko aukera izango dute, bertako produktuak dastatzearekin batera. Goizeko 10:00etan hasiko da azoka, 15:00ak arte. Goiz osoan zehar bertako produktuen postuak egongo dira, baita umeentzako tailerrak
- Mamia Edo Gatzatuaren Errezeta
- Martxoa aurrera doan honetan, hilabeteko produktua aurkezteko garaia iritsi zaigu, Ardi esnea. Ardi esneaz hitz egiten dugunean, gazta da burura datorkigun lehen produktua, gaurkoan ordea ardi esnez egin dezakegun postre erraz batekin gatoz, mamia edo gatzatua. Normalean postre bezala irudikatzen dugun arren, gosaltzeko zein askarirako oso interesgarria izan daiteke. Azukrearekin, eztiarekin, fruitu lehorrekin, garaiko frutarekin,

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

UROLA GARAIAN: BERTATIK BERTARA EGITASMOA

- **Ekintza batzuek:**
 - [Bertatik Bertara, Ilusioa Ereiten](#)
 - Bertatik Bertara proiektuak aurrera jarraitzen du, pausoz pauso, erronka ezberdinei aurre eginez. 2016an zehar lan handia egin da. Bertatik, gure eskualdeko lehen sektorearen egoera zein den ezagutu da: gaur egun zer ekoizten den, zenbat... Bertatik, baserritarren taldea konsolidatzen joan da. Eta, azkenik, baserritarren eta denda txikien arteko harremana landu da, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko zubiak
- **Proiektuaren dokumentala:** <http://bertatikbertara.eus/>
- [Parte Hartze Prozesuaren Bideoa](#)
 - Hemen ikus daitekeen bideoan, 2014ko lehen erdian Bertatik Bertara proiektuaren baqitan garatu den parte hartze prozesuaren laburpen bat ikus daiteke.

Urola Erdia eta Urola Garaiko esperientziak eta egitasmoak

- UROLA ERDIA ETA UROLA GARAiko hainbat herri [GOIMEN](#) elkarteko kide ere badira.
- GOIMENen baitan badaude hainbat inizatiba interesgarriak izan daitezkeenak GOIZANE eraikinaren baitan produktuen transformazioari begira, baina honen funtzionamenduaren gaineko zalantzak daude hainbat tokitan. Hau da, eraikina dago, tresneria ere bai baina ez dago garbi honen kudeaketaren ardura.
- GOIMEN-ek eskeintzen dituen zerbitzuak honakoak dira:

Belar bolen plastiko bilketa

Nekazal lurren gestioa, eskaerak, eskaintzak, aholkularitza

Hildako animalien bilketa

Pentsu ekologiko eskaintza

Purin banaketa

Belar lanak

Nekazaritza makineri zerbitzuak

Baserrietarako bisitaldiak

Baserri bide garbiketa

Azokatarako azpiegitura

Konposta egiteko bolteadora

Egurra mozteko zerra zerbitzua.

Baserritarrentzako ikastaroak

PRAKTIKA ONAK KANPOAN

- Ekonomia Zirkularraren printzipioak eta balio kateak eta merkatua kontuan hartuta aukeraturikoak
- Ahaztu gabe UROLAn egiten diren egitasmoak ere praktika on kontsideratu daitezkeela (Analisian aipatu ditugu batzuek)
- Hauei ekarpena egiteko asmoarekin aukeratuak

Praktika onak ekoizpenean

BASERRI AGROEKOLOGIKOA FRUTAK ETA BARAZKIAK EKOIZTEKO. MATTENEA BASERRIA

- Mattenea nekazaritza ekologikoko familia-baserri bat da. Tunel erako 900m² berotegia du, 2500m² ditu aire librean eta hainbat fruitu-arbola, ikuspuntu organoleptikotik eta nutrizionaletik kalitatezko frutak eta barazkiak ekoizteko.
- Ekoizpen horretan ez dute erabiltzen ongarri kimikorik, pestizidarik, transgenikorik, eta orokorrean, era guztietako sintesi-produktu kimikorik. Horren ordez, baratzea ongarritzeko, Hondarribian bazkatzen duten behien eta ardien simaurra nahasi egiten da lastozko ohearekin edo hainbat hilabete lehenago multzoetan konpostatutako belar lehorrarekin, hori guztia ongarri moduan erabiltzeko. Era berean, ongarri berdeak ere erabiltzen dira lurra aberasteko, bere egitura hobetzeko eta "belar txarrak" izenekoen inbasioa murrizteko. Gainera, ekosistema aberasteko, izkinetan loreak eta beste hainbat babesleku jartzen dira intsektu polinizatzaileak eta fauna laguntzailea erakartzeko. Bestetik, plagak eta gaixotasunak hedatzea saihesteko, eta lurzorua baliabideak hobeto aprobetxatzeko, hazkuntza-errotazioak eta -elkarketak egiten dira.
- Baliabide naturalen kontsumo eraginkorra egiteko, baserria biomasaren galdara batekin berotzen da, eta hazkuntza araberak, tantakako eta/edo aspertsiozko ureztapenarekin ureztatzen da euriaren urarekin. Euri-ura teilatuan jasotzen da eta 50.000 litroko gordailu batean biltegitzen da; horrela, ia erabat saihesten da sareko uraren erabilera.
- Ekoizpenaren hondakin organikoak konpostatu egiten dira ondoren baratzean erabiltzeko, eta konpost hori simaurraren osatzen da. Elikadura-soberakinak gutxitan izaten dira, eta hala gertatzen denean, Caritasi ematen zaizkio.
- Produktu freskoen salmenta Bidasoa eskualdeko zirkuitu laburretan egiten da, eta Hondarribiko azokako eta baserriko zuzeneko salmenta lehenesten da. Era berean, produktu ekologikoen denda bat, bi jatetxe eta bere nekazaritza-turismo familiarra ere hornitzen dira, non baratzeako produktuekin egindako gosaria eta afaria eskaintzen diren.

EUSKAL HERRIKO HAZI EKOLOGIKOAK.

ALEKA

- LEHENGAIEN ETA PIEZEN EROSKETA EDO TRUKERAKO TRESNA DIGITALEN ERABILERA

- Aleka elkarteak egungo hazi-merkatuaren alternatiba sortzen diharduen ekimena da, hazi-merkatu horrek uniformetasuna eta higadura genetikoa nahiz kulturala inposatzen baitizkio gure nekazaritzari. Alternatiba hori eratzeko, Alekak:
 - **Landaketen bioaniztasuna** sustatzen du gure lurraldean, bertako nekazaritza- eta kultura-baldintzetara espezifikoki moldatutako hazi-barietateak merkaturatuz.
 - **Artisau eran ekoiztako haziak** eskaintzen dizkie amateurrei nahiz profesionali. Haziak Euskal Herriko ustiapen agroekologiko txikietan ekoizten dira baserriar sare antolatuetan baten baitan.

Praktika onak transformazioan

KOOPERATIBA KONTSERBAGILEA, SUKALDARITZA TRADIZIONAL EKOLOGIKOKO KONTZPETUAREKIN. EKOTARRIKO

